

Militarrak eta autonomia

Deia, 1977-06-29.

Espainiako militarrek ez dute Herrien arazorik inoiz ulertu.

Politikan arrazoi-biderik ez dagoenean klisetara eta dogmakerietara jotzen den bezala, abertzalekeria edo patriotismokeria arazoan ere joera berdinak nagusitzen dira, eta hala izan dute Espainiako militarrek gehienetan Separatismoaren baliamendua.

Espainiako politiko askorentzat *gorriak* izan gara euskaldunak, eta militarrentzat batez ere *separatistak*.

Badirudi gauzak aldatzen hasiak direla.

Ez dut uste gaur agintzen dauden militarrek ezer aldatu direnik, baina berez desegin den Unión Militar Democrática-k argitaratu duen agiriak zerbait erakusten digu, aipatzen dituzten eskakizunen artean. Herrien *autonomiak* daude.

Honek erakusten digu hemendik bost bat urte barru inguru militarrek ibiliko dituzten bideak nondik abiatzen hasiak diren.

Eta honek ez du esan nahi guk gurea lortzeko bost urte zain egon beharko dugunik! Aurretik dabilzatenak gu baigara, ez haiek.